



Berrien buletina

AGOIZKO UDALA

www.agoitz.eus – www.facebook.com/ayuntamientoaoiz

76 zk.-2023ko abendua
AZAROA LABURPENA

Martxan dago Ekaiko Zerrategiari buruzko prozesu parte-hartzailea

Ekaiko Zerrategia auzoa da XX. mendean lehen erdiko Nafarroako ondare arkeologiko industrialaren adibiderik garrantzitsua. Garrantzi historikoa nabarmena du, oso handia baita, baina ez da gutxiago nabarmentzen hura sendotzeko eta erabiltzeko premia, behin betiko gal ez dadin.

Prozesuak Nafarroako Gobernuaren finantziakoa izan du eta Longida, Agoitz, Artzibar eta Orotz Beteluko udalen laguntza; Cedernak koordinatu du. Prozesu parte-hartzaile eta tekniko bat egitea izan da helburua, auzoaren egungo egoerari, haren garrantzi historikoari, balioei, eskualdeko beste lurralde-baliabide batzue-

kiko harremani, Aurrepirinioa dinamizatzeko ahalmenari eta eremuan garatu beharreko herriarren ideiak identifikatu eta biltzeari buruzko dibulgazio eta sentsibilizazio publikoa sustatzeko.

Hauek dira egindako etapak:

- Informazio bilaketa: Hasierako fasean eskuragarri zegoen informazio guztia bildu zen, historikoa, soziala, planak, azterlanak eta txostenak, eta parte hartzeko faserako agente interesgarriak eta kontaktuak identifikatu ziren.

- Prozesuko komunikazioa eta bertan parte hartzeko gonbida-

pena: egutegia, logoa eta kartela diseinatzearekin batera, komunikazioak, mezuak eta iragarkiak bidali ziren egin beharreko prozesuari buruzko informazioarekin; eta parte hartzera eta inplikatzera gonbidapena egin zen. Paraleluki, Ekaiko Zerrategia auzorako norabide-seinaleak jarri ziren ibilbidean jarritako jardinerari batzuetan.

- Bisita gidatua: urriaren 27an informazio bisita bat egin zen eremuko teknikariek, agintariek, ikastetxeekin eta inguruko elkarteekin, prozesuari buruzko informazioa emateko, ekarpenak biltzeko eta haien eragin-eremuei prozesuan parte hartzeko aukera helarazteko.



AGOIZKO UDALAREN KOMUNIKAZIO, INFORMAZIO ETA PARTAIDETZA PLANA 2023

Berrien buletin hau e-mailez jaso nahi baduzu, igorri mezu bat comunicacionaoiz@gmail.com-ra, eta bertan adierazi gaia, hots, buletina.

- Parte hartzeko tailerrak: aldi berean, tailerrak egin ziren Agoitzen eta Ekain, urriaren 31n eta azaroaren 7an hurrenez hurren, zerrategiaren jarduerari buruzko memoria indibidualaren eta kolektiboaren inguruan. Espazioaren etorkizunera begira, ideiak proposatzeko fasearekin hasi ziren. Azaroaren 2an eta 9an, hasierako ideia horietako baten batean sakontzeko tailerren txanda izan zen. Horretaz gain, azaroaren 26ko aldarrikapen-jaieguna diseinatzeko eta ondorengo ibilbide-orria

egiteko proposamenak egin ziren. Helburua da Zerrategiari eta bere inguru osoari irtenbidea emateko eskari etengabea bultzatzea.

- Eskualde mailako jaieguna: prozesuaren amaiera gisa, eskualdeko jai-jardunaldi bat egin zen, parte-hartze zabala izan zuena: bisita gidatuak antolatu ziren, zerrategiko multzoan lan egin zuten pertsonak omendu ziren, landare eta beste materialekin arte iragankor pieza batzuk egin ziren. Kaleko animazioarekin girotu zen eguna.

- Dibulgazio-bideoa: prozesuari buruzko bideo bat egiten ari da, edukia laburbiltzeko eta hedapenari indarra emateko, hurbileko lurralde-eremutik hara.

- Ondorioen txostena eta horren hedapena: prozesuari, parte-hartzaileei, lehentasunez hobetsitako proposamenei eta ondorioei buruzko txosten bat idatziko da, udalei, Nafarroako Gobernuari eta intereseko beste estamentu batzuei aurkezteko.

Beraxitoa parkea hobetzeko proiektuaren lehenengo fasea

Agoizko Udaleko Ondare, Garapen eta Ingurumen Arloak herriko hainbat berdegune hobetzeko proiektua egin zuen duela hila-bete batzuk.

Horieta bat Beraxitoa parkearena da. Jarduketa Agoizko 2030 Tokiko Agendak jasotzen duen

ekintzetako bat da, garapen iraunkorra eta ingurumenaren zaintza helburu dituen. Modu partekatuan diseinatu da parkea, prozesu parte-hartzaile baten bidez eta Mikel Baztan paisajistaren laguntzarekin. Eta, dagoeneko, goza dezakegu Beraxitoa parkean egindako hobekuntza batzuek.

Aisialdirako gune handi horri beste aire bat ematea lortu da; eta horretarako proiektuaren fase guztietan lankidetzan aritu da: diseinuari dagokionez, bereziki, Berdeguneak taldearekin; landaketari dagokionez, tokiko elkarte eta erakunde guztiekin eta 2022an jaiotako hurrekin; zaintzari da-



gokionean, boluntarioekin eta udal lorezaintza zerbitzuarekin. Denen lanari esker orain gozatu dezakegu.

Beraxitoa parkeak berezitasun berezia du bere aniztasun handiagatik, bertan urtero loratzen baitira natur interes handiko basa-orkideta mota batzuk. Horregatik, eta horien kontserbazioa sustatzeko, urritik ekainera bitartean haien hazkundera errespetatuko da, eta

ugarienak diren eremuetan ez da moztuko. Espazio honetan berdegunearen gozamina naturak udaberriaren eskaintzen dizkigun landare-altxor delikatu horien zaintzarekin uztartzea lortu behar dugu. Gaur egun, urmael bat dago espazioan. Urlehortarren, hegaztien, ugaztunen eta intsektu erabilgarrien espezie jakin batzuei babesa emateko balioko duela espero dugu, eta premia handieneko garaietan bertan edateko aukera

izanen dutela. Gainera, txakurren aisialdirako gune bat sortu da, eta bertan maskotez gozatzeko eta bizikidetzaren sustatzeko aukera izatea espero dugu, haien hondakinen erantzule eginez. Naturan integratutako jolasgune berriak eta lorategiak daude aurreikusita, eta epe ertainera egitea espero dugu.

Guztion artean ingurune natural handi hau zaindu eta gozatu ahal izatea nahi genuke.



Inausketak murriztea, zuhaitzak salbatzeko eta klima-aldaketara egokitzeko

Klima-aldaketaren eragina dagoeneko nabaritzen ari da gure udalerrian. Zuhaitz batzuk, platanondoak adibidez, lehortzen ari dira eta onddo eta izurriteen eragina jasaten ari dira, azken urteetako tenperatura altuen eta euri eskasiaren ondorioz. Horrez gain, eguzkitara dauden zolatutako lekuek kaleak eta plazak berotzen laguntzen dute, eta, ondorioz, pertsonen osasuna eta ongizatea arriskuan jartzen da.

Arazo horretaz jabetuta, Udalak inausketa irizpideak aldatuko ditu ahalik eta ale gehien bizirik irauteko eta kaleak eta plazak freskatzeko.

Alde batetik, inausketa egin au-

rretik orria galdu arte itxaronen da. Bestetik, hurrengo urteetan, lehendik dagoen zuhaitzia naturalizatu egingen da, etxebizitzetatik bi metro baino gutxiagora hurbildu gabe hazteko nahikoa leku dagoen tokietan.

Hasierako inausketa bat egin behar da zuhaitzaren egitura naturala berreraikitzeko, sortzen diren kimu berriek aldizkako inausketarik behar izan ez dezaten. Egiaz-tatu da etengabe inauskten ez diren eta libreki hazten diren zuhaitzak etengabe inauskten direnak baino askoz osasuntsuago daudela.

Beste udalerrri batzuetan lortutako emaitza onak ikusita, aurten hasiko dira kudeaketa-modu hori

praktikan jartzen Agoizko udal-zuhaitzian.

Zuhaitzak naturalizatuta, hiru helburu lortu dira: zuhaitzak salbatzea, zuhaitzen etengabeko mantentzearen beharra murriztea eta plaza eta kaleetako itzalgu-neak handitzea datozen urteetan, giroa freskatzeko eta gero eta ohikoagoa den "bero-uhartearen" eragina murrizteko.

Temperaturak etengabe igoko direla aurrikusten denez, pertsona kalteberenen eta herritar guztien babesean eta ongizatean pentsatzera behartzen gaituzte, eta, ondorioz, itzalpeko azalera handitu nahi dira espazio freskoagoak eta bizigarriagoak lortzeko.

Biomasari buruzko hitzaldiak enpresentzako

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak hitzaldiak antolatu zituen azaroan Nafarroako hainbat herritan, enpresek biomasak karbonoa gutxitzeko eskaintzen dituen abantailak eta aukerak eza-gutu zitzaten. Agoitzen, hitzaldia hilaren 9an eman zen.

Bileretan, industria motaren bakoitzeko merkatuan dauden galdara motei buruzko informazioa eman zen. Horretaz gain, energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko eta autokontsumorako dauden dirulaguntzen berri eman zen, eta baita indarrean dauden zerga-kenkarienenak ere. Eta zenbait enpresaren arrakasta-kasu batzuk ere aipatu ziren.



Jardunaldi horiez gain, Biomasa Bulegoak doako aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen die energia berdearen iturri hori erabili nahi duten enpresei.

Gogoan izan bulego hau Agoizko

Energia Berriztagarrien Zentro Nazionalean (CENER) dagoela. Nafarroak biomasa bultzatzen duen guneetako bat bihurtzen ari da Agoitz. Baso-biomasa eta teknologia zentro pilotu bat izateaz gain, basoa ere ondoan dago.

ASPACEk WEEE LABEX ziurtagiria lortu du

Ecointegrag, ASPACE Nafarroak Agoitzen duen birziklatze plantak, WEEE LABEX ziurtagiria lortu du, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen bikaintasunaren etiketa. Birziklatzeari dagokionez enpresak dituen jardunbide egokiak balioan jartzen ditu ziurtagiriak, hainbat alderdi aztertuta: ingurumenaren babesa, osasuna,

pertsonen segurtasuna eta hondakin mota horien kudeaketaren logistikaren ondorio kaltegarrien kontrola.

Lorpen horrekin, Ecointegra ziurtagiri hori lortu duen estatu mailako lehen lantegietako bat da. Horrela, Europako kudeaketa-sistema integratu guztien funtziona-

mendua gardena dela berresten du, eta garapen jasangarrirako 2030 Agendaren helburuekin batera lan egiten du.

Lantegiak 2016an lortu zuen ziurtagiri hori GEEH txikien lerroan, eta 2020an, GEEH handietan. 2023an egin duen lana (hozteko gailuak) nabarmendu izan nahi da kalitatezko etiketa honekin. Urte horretan, instalazioak 6.000 tona inguru tratatuko ditu, kalitate-estandar maximoak bermatuta. Eta, gainera, garrantzitsuena egiten du: bere giza taldea. Lantegia 2007tik dago martxan, eta 60 langile baino gehiago ditu. Horien % 93k desgaitasuna du, eta batez besteko desgaitasun-maila % 43,4koa da. Eta ia % 30 Agoizko landa-ingurunean bizi dira, eta, horrela, hirietara joan beharrik ez izatea sustatzen dute, lan egin ahal izateko.



Ángel Martín Unzué, Toki Erregimeneko Foru Batzordean

Batzorde Exekutiboaren legegintzaldiko lehen bilkurari dagokion bezala, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkariak izendatu zituen, federazioak parte hartzen duen berrogeita hamar kontseilu eta batzorde sektorialetan baino gehiagotan aritzeko (gehienak Nafarroako Gobernuaren esparrukoak). Batzorde guztien

artean, Toki Araubideko Foru Batzordea nabarmentzekoa da, duen garrantziagatik. Batzorde hori foru eta toki administrazioen arteko elkargunea da, eta bere zeregin nagusia da Nafarroako Gobernuak ematen dituen eta toki entitateen eskumen eremuari eragiten dioten arau guztien txostena egitea. Honako hauek izendatu dira ba-

tzordean aritzeko: Agoizko alkate Ángel Martín Unzué, Xabier Alcuaz NUKFko presidentea, Antonio Moleón (Arroizko alkatea), Tirso Calvo (Ribaforadako alkatea), Jon Gondán (Zizur Nagusiko alkatea), Cristina Ibarrola (Iruñeko alkatea), Manuel Romero (Arangurengo alkatea) eta Mikel Oteiza (Atarrabiako alkatea, gonbidatua eta botorik gabea).

“Osasuntsu zahartzea” Nafarroako Osasun Eskolako tailerra

Nafarroako Osasun Eskolak udazken honetan antolatu duen jardueretako bat Agoitzen izan zen. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (ISPLN) koordinatuta, eta Agoizko Erretiratuen, Alargunen eta Pentsiodunen Plataformarekin lankidetzan, “Osasuntsu zahartzea” izenburupean eman-

dako tailerrak zahartze aktiboa eta osasungarria sustatu nahi du. 60 urtetik gorako pertsonen zuzendutako lau saio izan dira, eta Gizartetxean egin dira. Doako programazioa da, eta Agoitzen kasuan Adinekoen Eskolak eskaini du.

Nafarroako Osasun Eskola 2015ean sortu zen, eta bizitzako

etapa edo bizi-egoera desberdinetan dauden pertsonen osasuna hobetzeko proiektu bat da. Saioak gaian aditutakoek eta irakasle kolaboratzaileek eskaintzen dituzte (profesionalak zein adinekoak, gurasoak, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak eta zaintzen dituzten pertsonak barne).

Tokiko kontsumo jasangarriaren alde

“Despentsa ehuntzen” proiektuak bideo berri bat atera du. Bertan, Zangozako eskualdean elikagaiak ekoizten dituzten pertsona batzuek azaltzen dute oso garrantzitsua dela erosketa saskia hurbileko produktuekin betetzea. Aurizberri, Orbaizeta, Orbara, Lakabe, Itzaltzu, Agoitz eta Oibarreko ekoizleek azaltzen dute bertan gure ekonomiari eta gure osasunari egiten dioten ekarpena.

Pertsona horiek guztiak “Despentsa ehuntzen”ek Zangozako eskualdeko ia 30 ekoizpenekin argitaratutako katalogoaren parte dira, eta Cederna Garalurren webgunean kontsulta daiteke. “Despentsa ehuntzen” proposa-



menak tokiko elikadura sistema sustatzen du Zangozako Merindadean, Pirinioetako eskualdeak, Pirinio aurreko eskualdeak eta Zangozako eskualdeak osatua. Helburua da elikatzen gaituzten, herriei bizia ematen dieten eta paisaia marrazten duten pertsonak ikusaraztea. Eta, gainera,

lurralde honek eskaintzen dizkigun elikagaien aberastasun eta aniztasun guztia balioan jartzea.

“Despentsa ehuntzen” lanaren hurrengo lana logistika proiektu pilotu bat izanen da, Zangozako eskualdean tokiko produktuen mugikortasuna bultzatzeko.

Emakumeekiko bortizkeriaren aurkako zikloa

Beste urte batez, Agoizko Udaleko Berdintasun eta Kultura arloek, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako zikloa programatu dute.

Agoizko gazteen eskari eta interesaren ondorioz, ziklo honetan "Kuadrillak berdintasunaren alde" tailerra sartu da. Rut Iturbide hizlariarekin, eskolak emateko data ohiko komunikazio kanaletan iragarriko da.

Igandean, hilak 12, "Perfecta" antzezlanaren behera geratu zen eta martxora atzeratu zen.

«Agoitzen ez ditugu onartzen eraso sexistak» izeneko oroime-nezko ekitaldiak jende ugari bildu zuen azaroaren 19an, igandea, Nafarroa Beherea plazan. Omenaldi xume eta hunkigarria izan zen, hildako emakume guztiei, haien seme-alabei eta 2023an bizirik iraun zuten emakume guztiei aitortza emateko. Merezitako tributuekin batera, kanpai-hotsak entzun ziren eta haien oroimenaren ome-

nezko aureskua dantzatu zen. Larunbatean, hilak 25, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunean, elkarretaratzea egin zen udaltxearen atarian. Ekitaldi horretan, agoizkoek borroka feministarekiko konpromisoa agertu zuten, indarkeriarik gabeko gizarte demokratikoa eraikitzeko bide eta tresna nagusi gisa.

AZAROAREN 25ARI BURUZKO ADIERAZPEN BAT ONARTU DA. Agoizko Udalak azaroaren 25ari buruzko EHBilduren manifestu bat onartu zuen osoko bilkuran. Adierazpen horrek emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gaitzestea du helburu, edozein esparru eta testuingurutan. Testuak jasotzen du, Administrazio Publiko gisa, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko lanean jarraitzeko konpromisoa, baita emakumeek eta neskek indarkeriarik gabeko bizitza izateko duten eskubidea bermatuko duten neurriak txertatzeko ere. Tokiko protokoloak, erakundearen konpromisoa eta gi-

zonei zuzenean egindako interpellazioa betetzen direla bermatzea, emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurkako konpromisoak har ditzaten eta jarrera aktiboa izan dezaten.

ERAKUNDEEN ATXIKIMENDUA. "Ikusten? Gelditu!" da kanpainaren leloa, gure gizarteko eremu publiko eta pribatu guztietan dauden sexu-indarkeriei aurre egiteko erresistentziak ikusarazi nahi dituena, gizonak zuzenean interpellatuz. Indarkeria hori betikotu egiten da egunero ikusten eta entzuten ditugun portaera askoren normalizazioaren bidez, diskurtso ukatzaileen bidez eta gizon askoren konplizitate edo axolagabetasunaren bidez, besteak beste.

Kanpaina sustatu duten toki-erakundeetako berdintasun-arloek egindako adierazpen instituzional bat du kanpainak. Adierazpen hori udalbatzei proposatu zaie, onar dezaten, eta 140 toki-erakundek (Agoitz, besteak beste) bat egin dute kanpainarekin, indarkeria matxisten aurrean gaitzespena eta konpromisoa adierazteko.



Alerta meteorologikoak igortzeko sistema



Nafarroako udalerriek tresna berri bat dute beren lurraldean eragina duten Estatuko Meteorologia Agentziaren (AEMET) alerta meteorologikoak automatikoki eta denbora errealean jasotzeko. Informazioa berehalakoa izatea nahi da, larrialdietako udal-planetan jaso-

tako ekintzak azkar abian jartzeko.

Sistema berri horrekin, AEMETen alertak, argitaratu bezain laster, Nafarroako Gobernuaren zerbitzari batera iristen dira. Bertan, larritasunaren arabera sailkatzeten dira, eta, ondoren, fenomeno

meteorologikoek kaltetutako eremu-eremu udal arduradunei bidaltzen zaizkie. Bidalketa automatikohorietan Telegram edo posta elektronikoko bidez egiten dira (udalek aukeratu behar dute nola), eta, horrela, SMS teknologiaren eta orain arte erabilitako alerten eskuzko bidalketaren eragozpenak saihesten dira.

Tresna hau abian jartzeak tokiko erakundeekin modu estuan eta koordinatuan lan egiteko ildo estrategikoan eragiten du, larrialdien baten aurrean jarduteak dakarren lehentasunean.

LEB jaialdia, abangoardia eszenikoa, Agoitzen

LEB Hizkuntza Eszeniko Berrien Nazioarteko Jaialdiaren lehen edizioa Agoitzen izanen da abenduaren 1etik (ostirala) 9ra (larunbata). Honako hauek osatzen dute lehiaketa: antzerki-lanak, dantza-lanak, performance artistikoak; profesionalentzako eta ikasleentzako tailerrak, Arte Eszenikoen Akademiarekin lankidetzan, eta gaitasun desberdinak dituzten pertsonentzako prestakuntza-ikastaroak; tokiko kolektiboekiko bitartekaritza-ekintzak; eta eztabaida-foroak, Antzerki Egileen Elkarteak (AAT), Eszena

Zuzendarien Elkarteak (ADE) eta Nafarroako Eszena Enpresa Elkarteak (ESNA) antolatutak.

Jaialdiak abangoardia eszenikoa landa-ingurunera hurbildu nahi du, pertsona guztien kulturarako sarbidearen eskubide unibertsalaren oinarritzko premisari erreparatuta.

Joan den ostiralean, azaroaren 10ean, aurkeztu zen Casa de Cutura Agoizkan bere lehen edizioaren programazio osoa. Ekitaldian parte hartu zuten Angel Martin Unzue Agoizko alkateak,

Asier Andueza LEB Jaialdiko zuzendariak eta La Perra Creaciones taldeko Ana Cavilla bitartekaritza-programaren arduradunak.

Aurkezpen horren baitan, LEB ZABAL dibulgazio-erakusketa inauguratu zen, Pía Troglia artista argentinarren eskutik. Erakusketa horrek espazio dinamiko bat proposatzen du, LEB Jaialdiaren programazioan parte hartzen duten konpainien sormen prozesuetara eta kodeetara hurbiltzeko. Erakusketa jaialdia amaitu arte egonen da zabalik.



Fallo del XVIII Certamen de Fotografía

Ángel Benito Zapata eta Edurne Mañú Aristu izan ziren Agoitz Hiria XVIII. Argazki Lehiaketaren irabazleak: Ángel kategoria orokorrean (jende guztiari zabalik dagoena) gailendu zen, "Moderno con luz" izeneko irudiarekin, eta 500 euroko saria jaso zuen; Edurne, berriz, herrikoen kategorian gertatu zen irabazle, "Diente de León-Sorgin belarra" izeneko argazkiarekin, eta 300 euroko saria eskuratu zuen

Modalitate orokorra, jende guztiari irekitako kategoria, Ignacio Armendariz eta Adolfo Lacunzak (argazkigintzako profesionalak biak), Patxi Huartek (Agoizko bizilaguna eta diseinatzaile grafikoa), Ángel Martín Unzuek (Agoizko alkatea) eta Lorea Mendezek (Agoizko

Kultur Etxeko koordinatzailea eta idazkaria) osatutako epaimahaiak aukeratu zuen. Agoitzen erroldatutako pertsonen mugatutako modalitateko irabazlea aukeratzeko, bozketa bat egin zen azaroaren 18tik 26ra bitartean, epaimahaiak aurrez hautatutako hiru irudiren artean. Epaimahaiak argazkiak baloratu zituen haien adierazpen plastikoren, kalitate teknikoaren, konposizioaren eta duen mezuaren arabera.

Sari-banaketa abenduaren 15ean egin zen, lehiaketara aurkeztutako argazki guztien erakusketaren inaugurazioa zela eta. Erakusketak abenduaren 30era arte bisitatu ahal izan zen Agoizko Kultur Etxean.



Kultur balantzea

Sendaberri programa. Nafarroako Antzoki Sarearen Paisaia eszeniko berriak 2023 'antzezlanak Agoitzera iritsi zen "Eresia, lurra arin bekizu, ama" euskarazko antzezlanarekin eta ondorengo solasaldiarekin.

Musika ere presente egon zen zenbait formatutan. Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren finalurrekoa jokatu zen. 270 pertsona inguru bildu ziren Kultur Etxean finalerako sailkatu zen Julio Sotoren garaipena ikusteko. Agoizko Musika Bandak kalejira egin zuen Santa Zeziliaren omenez. Eta Bilaketa Ahots eta Instrumentu Taldeak "Gure bizitzako kantak" jaialdia eskaini zuen. "Bira Nafarroan barna" programak, Foru Komunitatean sortzen ari diren talde eta artistei zuzenean jotzeko aukera ematen dienak, "Joseba Irazoki eta Lagunak" proposamenarekin etorri zen Herrera, folk, rock, psikodelia eta esperimentazio

instrumentala uztartzen dituen kontzertuarekin.

Bi erakusketa egon ziren azaroan. Alde batetik, LEB ZABAL, LEB Jaialdiaren dibulgaziozko erakusketa, eta bestetik, Sonanbulu Unibertsoa guneak "Atzoko" eskolako liburuak bildu zituen. Hiritartasun-kartilatik katiximara, kaligrafia-koadernoak edo entziklopediak.

Toki Eder pilotalekuak Bigarren Eskuko, Birziklatzeko, Trukerako eta

Tokiko Artisautza Azokari eman zion aterpea, Sarean-ek antolatutakoa da, eta aurten X. edizioa ospatu du.

Beste jarduerak batzuk ere egin ziren euskaraz. Mintzakideren programazioaren barnean, bertsolaritzari buruzko saio bat antolatu zen eta HIDEAK egindako toponimia mapa berriari buruzko hitzaldi bat eman zen. Era eta Gazte Txokoetan jostailu erakusketa eta ipuin kontaketa bat programatu ziren.



Kirolean eta aisialdian adingabeekiko bortizkeriaren aurka jarduteko protokoloa

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kirolaren Institutuaren (IND) bidez, kirol erakundeei helarazi die kirol eta aisialdi eremuan haur eta nerabeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloa. Protokoloaren testua INDk egin du, Nafarroako Gazteriarren Institutuarekin lankidetzan, eta Migrazio Politiken Departamentuak eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak berrikusi dute. Dokumentuaren helburuak

dira prebentzioa, detekzio goiztiarra eta adingabeengan gerta daitezkeen indarkeria egoeren aurrean esku hartzea, eta ingurune seguruak eta babesekoak eraikitzea, bai kirolean, bai aisialdirako guneetan.

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteko Lege Organikoa betetzeko jarri da abian protokolo hau. Arau horrek, estatu-mailakoak, adierazten du

adingabeekin kirol edo aisialdi jarduerak egin ohi dituzten erakundeak behartuta daudela jardura protokoloak aplikatzera eta monitorizazio sistema bat ezartzera, betetzen direla ziurtatzeko.

Agoizko Udalak, Agoizko Kirol Elkarteak, Kanpondoa kirol guneak eta Pilota Eskolak bat egiten dute dokumentu honekin, erakunde horiek beren bat egin arte.

Sarean, hamar urte laguntza eta babesa ematen

2013. urtean, krisi ekonomikoaren erdian, Agoizko auzokide talde batek indarrak batzea eta Sarean sortzea erabaki zuten, herriaren egoeraz sentsibilizatuta. Sortutako taldearekin bat egin zuten herriko Beharra eta Babespean taldeek (inor etxegabetze batengatik kaletan gera ez zedin aholkularitza ematen zuten eta etxegabeteen aurka aritzen ziren taldeak). Urte horretako maiatzean hasi ziren lanean, eta Udalak utzitako lokalak elkartzen hasi ziren.

Asko izan dira kolektibo sozial honek Agoizko eta inguruko bizilagunei laguntzeko eman dituen pausoak. Gaur egun, eta hamar urte lan desinteresatua eta borondatezkoa egin ondoren, jarduerak egiten jarraitzen dute eta beste jarduerak batzuk eskaintzen dituzte, egoera eta errealitate berrietara egokituz. Horien artean, honako hauek aipa ditzakegu:

- Lehen beharretako gaiak jaso eta banatzea (arropa eta oinetakoak, tresneria, etxeko arropa zuria...)
- Eskola-materiala eta jostailuak



biltzeko kanpainak

- Tokiko eta inguruko eskulangintza-merkatua eta bigarren eskuko merkatua, trukea eta birziklapena
- Agoizko Udaleko Berdintasun Arloarekin lankidetzan aritzea, zenbait jardura antolatuzko (martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, eta azaroaren 25a, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna)
- Tailerrak, Agoitzerako eta eskualderako eskaintzen direnak.
- Lankidetzan Gurutze Gorriarekin (Harrera Familiak)

Gizartetxea eraikineko bigarren solairuan du egoitza, eta han-

dik 160 familia baino gehiago igaro dira beren zerbitzuak edota laguntza eskatzeko. Sarean lan egiten dute beti, euren izenari, logotipoari eta filosofiari keinu eginez. Eta, jakina, beti erakunde eta taldeen lankidetzarekin, hala nola Agoizko Udala, Angiluerreka, Izaga Gizarte Zerbitzuak, Agoizko Kirol Elkarteak, Irati Hondakin Solidoen Mankomunitatea, San Migel Ikastetxeko Guraso Elkarteak eta Haur Eskola, Agoizko zerbitzu eta dendak eta Gurutze Gorria.

Agoizko Udalak eskerrak eman nahi dizkio Sarean-eko talde osoari egiten duen lan garrantzitsu eta beharrezkoagatik.